2023-2024

# Ikasturte Politikoaren hasiera ekitaldia

EHBai

ehbildu

EUS

2023-2024
Ikasturte Politikoaren
hasiera ekitaldia

EH Baik eta EH Bilduk Euskal Herriaren askapen nazional eta sozialari begirako proiektu politiko eraldatzaile bat egikaritzen dugu, bakoitzak bere eremuan. Gaur, Hiriburun, euskal ezker independentismoaren zuzendaritzek bat egin eta, Euskal Herriak, herri gisa dituen aukera eta arriskuen gainean aritu gara eta Euskal Herriak dituen erronken aurrean baterajotze nazionalen norabidean ekimen berriak mahaigaineratzeko hausnarketa abiarazi dugu.

Euskal Herria baita, eta euskal herritarrak, Aturritik Ebroraino bizi diren herritarrak, eta beraien ongizate eta beharrizanak baitira, gure ekimen politikoaren protagonistak. Gure aburuz, euskal herritarren ongizatea Euskal Herriaren subirautzari hertsiki loturik doa, eta mundu mailan bizi den anabasa orokorrak zutoin irmoak eskatzen dizkigu. Ziurtasunak eta segurtasuna dira ezker subiranismoaren eskaintza. Herri gisa bizirik irauteko konbikzioa eta proiektu sendoa dugu eta geroz eta jende gehiagoren parte hartzeaz hornitzen doana. Hori erakusten dute bai Ipar Euskal Herrian bai Hego Euskal Herrian bi indar politikook azken hauteskunde zikloetan jaso ditugun emaitzek. Geroz eta euskal herritar gehiago daude ezker subiranismoarengan konfiantza ematen dutenak, eta guzti honek garbi adierazten du Euskal Herria ziklo politiko berri batean murgildua dela.

Euskal Herriaren egoerari erreparatuz gero, azken urtean egiten genuen analisian berresten gara. Aldagai sozial, ekonomiko eta kultural nagusien egiturazko azterketak ondoko ondoriora garamatza: Euskal Herriak erronka handiak ditu parez-pare. Aldaketa globalek eragindako krisi anizkoitzek bete-betean jotzen dute gure herria. Berdintasun-, ongizate- eta garapen-adierazle nagusien arabera, gure metabolismo komunitarioa arriskuan dago eta horrek bidegurutze historiko batean kokatzen gaitu. Gure herriak aurrera egin behar du, garaiko erronkek eskatzen duten neurrian.

Iragan urte politikoan analisi hau berretsi egin delakoan gaude, mahai gainean jarritako analisia hau geroz eta gizarte-sektore zabalagoek partekatzen dutela deritzogu. Egoera honek jauzi politiko bat galdegiten du. Arnasberritze nazional baten beharra dugu, bulkada nazional berri batena. Jauzi bat Euskal Herriaren askapen prozesuan: jauzi bat naziogintzari lotutako hainbat arlotan, lurralde-artikulazioan eta Euskal Herritik Euskal Herrira pentsatu eta garatutako politika publikoetan, hain zuzen ere, garaiko erronka

EHBai ehbildu

sozial eta ekologikoei handiei gure gaitasun komunitario eta territorialen arabera erantzuteko aukerak baliatuko dituena.

Eta jauzi bat horretarako guztirako ezinbestekoa zaigun burujabetza politikoaren berreskurapenean. Une politikoa ongi irakurriz, gatazka politikoaren oinarrian dagoen burujabetzaren auzia indar berriz mahaigaineratzeko unea da: nazio aitortza eta herri gisa dagokigun erabakitzeko eskubidearen errespetua. Jauzi bat nazio aitortza eta hortik eratortzen diren eskubideak egikaritu ahal izateko.

Alta, horrelako testuinguru batean, ezinbestekoa zaigu gaur, Hiriburun, Lizarra-Garaziko akordioak Euskal Herriaren susperraldi nazionalerako suposatu zuen mugarria nabarmentzea. Datorren irailaren 12an, 25 urte beteko dira herri honen historia hurbilean hizki larriz idatzia geratu den ekimen gogoangarri horretatik, herri honen eskubideen eta bere etorkizuna erabakitzeko bidean jauzi handia suposatu zuena.

Azken hilabeteetan egin bezala EHBai eta EHBilduren arteko harreman politikoak sakontzeko lanean segituko dugu, luze gabe, ekimen politiko bateratuak martxan jartzeko xedearekin. Euskal Herriaren nazio izaera indartzeko, eta Euskal Herria ziklo politiko berriari begira bere etorkizuna erabakitze bidean aukera eta ate guztiak parez-pare irekiak izan ditzan. Egin dezagun guztiok bultza. Hori da EHBildu eta EHBairen konpromisoa.

FRA



Nous, EHBai et EHBildu, mettons en œuvre un projet de transformation en vue de la libération nationale et sociale du Pays Basque. Aujourd'hui à Hiriburu, les deux Directions respectives des mouvements politiques abertzale de gauche se sont réunies afin d'échanger au sujet des initiatives nationales à promouvoir afin de répondre aux défis auquel doit faire face Euskal Herria.

Le Pays Basque, et les basques, les citoyennes et citoyens vivant au nord comme au sud de notre pays sont les protagonistes de notre action politique. De notre point de vue, le bien-être des citoyens basques intimement lié à la souveraineté du Pays Basque, et le désordre que nous vivons au niveau mondial nécessite que nous construisions des bases solides. Des certitudes et de la sécurité, voilà ce que proposent les abertzale de gauche. Nous avons un projet fort pour assurer la survie du Pays Basque ; un projet qui s'enrichit grâce à la participation de plus en plus de citoyens. Les résultats électoraux obtenus au Pays Basque Sud comme au Nord lors des dernières échéances électorales témoignent de cet essor. Le nombre de citoyens basques qui accordent leur confiance au projet souverainiste de gauche que nous portons ne cesse d'augmenter, personne ne peut nier que le Pays Basque entre maintenant dans un nouveau cycle politique.

En ce qui concerne la situation du Pays Basque, nous réitérons l'analyse que nous faisions l'an dernier. L'étude des paramètres sociaux, économiques et culturels nous amène au constat que le Pays Basque fait face à des défis colossaux, et il nous revient de les relever. Les multiples crises globales et systémiques touchent de plein fouet notre pays. Selon les principaux marqueurs d'égalité, de prospérité et de développement notre métabolisme communautaire est en sursis, et nous nous trouvons à un tournant historique pour notre pays. Euskal Herria doit avancer afin d'être à la hauteur des enjeux qui se profilent.

Cette analyse est selon nous partagée par de plus en plus de secteurs de la société. Le contexte évoqué nous oblige à faire un bond en avant. Nous avons besoin d'un nouvel élan au niveau national. Ce sont des avancées concrètes dans le processus de libération du Pays Basque dont nous avons besoin. Cela passe par des dynamiques de construction nationale, d'articulation territoriale et par des politiques publiques pensées au Pays Basque et pour le Pays Basque

qui entreront en adéquation avec nos capacités à répondre à l'échelle locale aux enjeux sociaux et écologiques.

Il est primordial que nous avancions sur la voie de la prise en main de notre souveraineté politique. Il est temps de remettre sur la table la source du conflit politique: c'est-à-dire la non-reconnaissance du Pays Basque en tant que tel et le non-respect de notre droit du peuple basque à décider de son avenir.

Aujourd'hui à Hiriburu, nous souhaitons rappeler le moment clé que fut celui de l'accord de Lizarra-Garazi. Nous fêterons dans quelques jours, le 12 septembre, le 25ème anniversaire de cette initiative ayant marqué l'histoire de notre pays dans sa lutte pour la reconnaissance de ces droits.

Comme lors des derniers mois, nous allons nous employer à approfondir les relations politiques entre EHBai et EHBildu dans le but de lancer des actions communes dans un futur proche. Nous avons pour objectif de renforcer les liens nationaux, alors qu'un nouveau cycle politique s'ouvre pour le Pays Basque, afin que nous puissions tracer le chemin qui nous mènera le Pays Basque à pouvoir décider démocratiquement de son avenir. Tel est l'engagement commun d'EHBai et EHBildu.

CAS

2023-2024
Ikasturte Politikoaren
hasiera ekitaldia

Tanto EH Bai como EH Bildu formamos un proyecto político transformador con el objetivo de lograr la independencia nacional y social de Euskal Herria. Hoy, en Hiriburu, nos hemos reunido las direcciones de la izquierda independentista vasca para tratar las opciones y riesgos que afronta Euskal Herria como pueblo, y hemos puesto sobre la mesa una nueva reflexión: la necesidad que tiene nuestro pueblo de crear dinámicas conjuntas, encaminadas a impulsar espacios comunes de unión ante los retos a los que nos enfrentamos.

Porque son Euskal Herria y la ciudadanía vasca, su bienestar y sus necesidades, desde el Aturri hasta el Ebro, los protagonistas de nuestra iniciativa política. En nuestra opinión, el bienestar de la ciudadanía vasca está estrechamente unido a la trasformación nacional vasca, y el caos generalizado que se está viviendo a nivel mundial, nos obliga a crear fuertes pilares. La oferta de la izquierda soberanista se basa en la seguridad y las certezas. Tenemos la convicción de seguir vivos como pueblo, y un proyecto político fuerte, que se nutre de cada vez más personas. Eso es lo que muestran los resultados que hemos cosechado ambas fuerzas políticas en los ciclos electorales de Ipar Euskal Herria y Hego Euskal Herria. Cada vez son más los y las ciudadanas vascas que confían en la izquierda soberanista, y todo esto es una clara muestra de que Euskal Herria está inmersa en un nuevo ciclo político.

Si nos fijamos en la situación de Euskal Herria, nos reafirmamos en el análisis hecho en el último año. En análisis estructural de los factores sociales, económicos y culturales nos lleva a la siguiente conclusión: Euskal Herria tiene grandes retos ante sí. Las diversas crisis generadas por los cambios globales afectan directamente a nuestro pueblo. Según los principales indicadores de igualdad, bienestar y desarrollo, nuestro metabolismo comunitario está en peligro, y eso nos coloca ante una encrucijada histórica. Nuestro pueblo tiene que avanzar al paso que exigen los retos que tenemos ante nosotros.

Creemos que a lo largo del año político que acabamos de cerrar se ha confirmado este análisis, y que cada vez lo comparten sectores sociales más y más amplios. Esta situación exige que demos un salto político. Necesitamos impulsar nuestro proyecto nacional,

EHBai ehbildu

crear un nuevo pulso. Dar un salto en el proceso de liberación de Euskal Herria: un salto en los diferentes aspectos unidos a la creación de nuestro pueblo, en la articulación territorial y en el desarrollo e implementación de políticas públicas pensadas desde y para Euskal Herria, políticas que, concretamente, han de ser capaces de responder a los retos sociales y ecológicos contemporáneos en base a nuestras capacidades comunitarias y territoriales.

Debemos recuperar la soberanía política necesaria para dar ese salto. Haciendo una lectura correcta del contexto político, es momento de impulsar y volver a poner sobre la mesa la cuestión soberanista que radica en el conflicto político: el reconocimiento nacional y el respeto a nuestro derecho a decidir como pueblo. Un salto hacia el reconocimiento nacional y la materialización de derechos que derivan del mismo.

En cambio, ante una tesitura como esta y en un día como este, desde Hiriburu, no podemos pasar por alto la importancia que tuvo el acuerdo de Lizarra-Garazi como hito de un nuevo impulso nacionalista. El próximo 12 de septiembre se cumplirán 25 años de esta iniciativa memorable que ha quedado grabada con mayúsculas en la historia de este pueblo, dado que supuso un gran salto en cuanto al reconocimiento de los derechos de este pueblo y en el camino hacia el derecho a decidir.

Como hemos hecho en los últimos meses, seguiremos trabajando para profundizar en las relaciones entre EH Bai y EH Bildu, con el objetivo de poner en marcha dinámicas políticas conjuntas. Para reforzar la nación vasca y para que Euskal Herria tenga abiertas de par en par todas las puertas posibles a la hora de poder decidir su propio destino en este nuevo ciclo político. Empujemos todos y todas juntas. Ese es el compromiso de EH Bai y EH Bildu.